


## **BEROAREN HEDAPENA**

1. Behatu ondoko irudiak:



a) Beroaren hedapena dela eta, zer deritzozun bakoitzari?

b) Idatzi hiru argazkiak erlazionatzen dituen esaldi bat.

2. Erantzun ondoko galderei azalpena emanez, beroaren hedapen mota adieraziz kasu bakoitzean:

a) Zartagin baten pareta, nola interesatzen da izatea mehea ala lodia?

b) Modaz aparte, zergatik erabiltzen dira udan kolore argien arropak eta neguan ilunak?

c) Hegoaldean, etxeek zuritzen dute karearekin. Uste duzu klimarekin zerikusia duela?



d) Berogailuak zergatik kokatzen dira lurraren mailan eta ez gorago?

e) Batzuetan hizkuntza ez dago ados fisikarekin! Ez da oso zuzena sopa bati putz egitea hozten dadin baina, oso eraginkorra da. Zergatik jaisten da soparen tenperatura putz egitean?

3. Merkuriozko termometroek kondukzioz neurtzen dute tenperatura. Azaldu zer eta nola gertatzen den.

4. Zure ustez nola hedatzen da beroa pizturiko bonbilla baten harizpitik kristalera? Kontuan hartu bonbillaren barnean gas inerte bat dagoela.

5. Adierazi nola hedatzen den beroa ondoko etxeko tresnetan:



6. Ondoko irudian adierazi nola transmititzen den beroa hiru egoeretan

